

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak babestutako etxebizitzaren salmenta eta alokairuen prezioak kalkulatzeko aplikazio informatikoa atera du

*Etxebizitzaren salmenta eta errentaren gehieneko prezioa kalkulatzeko, laguntzak itzultzeko betebeharra amaitzen den data edo babes ofizialaren epemugarena*

Jueves, 11 de abril de 2013

Nafarroako Gobernuak etxebizitzaren gaikako atarian ([www.vivienda.navarra.es](http://www.vivienda.navarra.es)) [informatika-tresna](#) bat jarri du herritarren esku eta, haren bidez, babestutako etxebizitza bat erosi, saldu edo alokatzeko beharrezko informazio guztia kalkulatu ahal izango da erraz eta etxetik atera gabe (etxebizitzako metro



Babes ofizialeko etxebizitzak.

koadroaren salmenta eta errentako gehieneko prezioa eta, hala badagokio, baita garaje eta trastelekuarena ere, laguntzak itzultzeko betebeharra amaitzen den data edo etxebizitzaren babesa amaitzen den data).

[Kalkulagailu](#) horren helburua herritarrei Etxebizitza Zerbitzuan asko eskatzen den informazioa ematea da, bai partikularren aldetik (babeztutako etxebizitza bat salerosteko edo alokatzeko interesa duten pertsonak) bai profesionalen aldetik ere (babeztutako etxebizitzaren sustatzaileak, tasatzaileak eta higiezin agentek).

Interesa duen pertsonak babeztutako etxebizitza kokatuta dagoen sustapeneko espediente-zenbakia eman beharko du soilik, haren transmisio-prezio eta -baldintzak kontsulta nahi direnak. Etxebizitzaren erosketako eskriturretan dagoen zenbaki hori sartuta, tresnak automatikoki ondorengo datuak emango ditu:

- Aztertzen den babeztutako etxebizitza-mota (BOE edo TBE)
- Eraikitzen noiz amaitu zen
- Babes-erregimena noiz arte zabaltzen den
- Etxebizitza erosteagatik jaso ahal izan diren laguntzak nahitaez itzultzeko data.
- Etxebizitzaren metro koadroko salmenta eta alokairuko gehieneko prezioa

Gainera, interesa duen pertsonari BOE zehatz bat saltzeko edo alokatzeko prezioa kalkulatzeko aukera emango zaio eta, horretarako,

etxebizitzaren eta hari erantsitakoen azalera adierazi beharko du (garajea eta trastelekua). Horri esker, aplikazioak babestutako etxebizitza jakin horri buruzko informazio guztia zehaztuko duen txostena sortuko du, dauden metroetarako saltzeko eta alokatzeko berariazko prezioekin.

Kalkulagailu berriak orain arte eraikitako BOE eta TBE guztien inguruko informazio emango du, haien antzintasuna aintzat hartu gabe; horrek eskatu du Etxebizitza Zerbitzuan jasota zeuden datu historiko guztiak tresna horretara bidaltzea.

Aipagarria da, gainera, informatikako erabilgarritasun hori Sustapen Departamentuko bertako baliabideekin garatu dela Gobernu Irekia eta Teknologia Berrien Zuzendaritzaren laguntzarekin; beraz, Nafarroako Gobernuak ez du kanpoko kostu ekonomikorik izan.